



**ETXEBIZITZA ETA GIZARTE  
GAIETAKO SAILA**  
Etxebizitza Sailburuordetza  
*Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA  
Y ASUNTOS SOCIALES**  
Viceconsejería de Vivienda  
*Dirección de Vivienda, Innovación y Control*

# **IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA**

2007. URTEKO TXOSTENA

## 2007. URTEKO TXOSTENA

# IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA

### AURKIBIDEA

1.- AURREKARIAK .....	2
2.- IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUAREN OSOKO BILKURA.....	3
3.- IRISGARRITASUN ARLOKO LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUA .....	9
3.1.- Kontsultak ebazteko eta aholkularitzako zerbitzua .....	9
3.2.- Irisgarritasuna Sustatzeko Batzorde Iraunkorarentzako eta Euskal Kontseiluarentzako laguntza tekniko.....	12
4.- IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUARI PROPOSATUTAKO GAIEN LABURPENA .....	13
4.1.- Txosten-eskaerak eta kontsultak .....	13
4.2.- Salbuespenak jakinaraztea.....	15
5.- 2007. URTEAN LANDUTAKO EDO LANKETA PROZESUAN DAUDEN UDALETAKO IRISGARRITASUN PLANAK.....	35
6.- UDALETAKO IRISGARRITASUN PLANETARAKO ETA OBRETARAKO LAGUNTZA EKONOMIKOEN DEIALDIA.....	37

## 1.- AURREKARIAK

Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea honako helburu honekin onartu zen: hiri-ingurunearen, gune publikoen, eraikinen, garraiobideen eta komunikabideen irisgarritasuna bermatzea, pertsona guztiek eta, batez ere, mugigarritasun murriztua, komunikazio-zailtasunak edo muga psikiko zein sensorialak, aldi baterako zein betirako, dituztenek era autonomoan erabil eta balia ditzaten.

20/1997 Legearen V. idazpuruan IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA aipatzen da; lege horren 24. artikuluan honako hau ezartzen da: administrazioek, ezinduen ordezkari diren erakundeek eta elkarteek, erabiltzaileek, sustatzaileek eta profesionalen elkargoek osatutako aholku-organo eta organo parte-hartzailea dela, 25. artikuluan xedatutako osaerarekin. Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilu horren eginkizunak honako hauek dira, 26. artikuluari jarraiki:

- a) Urtean behin txosten bat egitea, lege horretan ezarritakoa zein mailataraino betetzen den ezagutarazteko, eta gero Legebiltzarrera bidaltzea.
- b) Irisgarritasunaren arloan eskumenak dituzten organoei aholku ematea eta jarduteko irizpideak proposatzea, lege horretan xedatutakoaren arabera.
- c) Horren antolamendu eta funtzionamendurako araudia onestea.
- d) Bere esku uzten diren beste egiteko batzuk.

Eskakizun hori betetzeko, jarraian Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren jardueren 2007. urteko txostena aurkeztu da.

## **2.- IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUAREN BILERAK.**

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua 2008. urteko ekainaren 27an Osoko Bilkuran bildu zen.

Jarraian, bilerako Aktaren zati bat eta bertan jorratutako gaien laburpen bat gehitzen da txosten honetara.

### **IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUAREN 2007ko EKAINAREN 27ko BILERA**

#### **Bertaratuak:**

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritza. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

Baliabide Orokorren Zuzendaritza. Ogasun eta Herri Administrazio Saila.

Turismo Administrazioko eta Lehiakortasuneko zuzendaria. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila

Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritza. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila

Gizarte Politikarako Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia

Gizarteratze Zuzendaritza. Bizkaiko Foru Aldundia

Arabako Foru Aldundia.

Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargoa

Arabako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargoa

Euskadiko Kontsumitzaileen Federazioa

Elkartean Gipuzkoa. EAEko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzailea

Elkartean Araba. EAEko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzailea

Elkartean Bizkaia. EAEko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzailea

ONCE

Euskal Gorrak. Elkartearen Federazioa – Sordos País Vasco

## **Laguntza Teknikoa:**

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren Idazkaritza.  
Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritza.

Irisgarritasun arloko Laguntza Teknikoko Zerbitzuaren arkitektoa

Irisgarritasun arloko Laguntza Teknikoko Zerbitzuaren abokatua

2007. urteko ekainaren 27an Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak bilerari hasiera eman dio eta bertaratu diren erakunde ezberdinetako ordezkari, elkargo profesionaletako kideei, laguntza teknikoko ekipoari eta batez ere, ezinduen kolektibo ezberdinei eskerrak eman ondoren, burutzen duten eguneroko lana esanbidez aitortu die irisgarritasunari dagokionez gure hiri eta herrietan eskuratzen ari diren lorpenen garrantzia azpimarratuz, aurreikusitako Gai Zerrendaren ildo orokorrak azaltzeari ekin dio eta bertaratutakoei beren burua aurkeztera gonbidatu die.

Behin aurkezpenak egin ondoren, deialdian proposatutako **Gai Zerrendari** heldu zaio.

### **Lehenengo puntua: Aurreko Kontseiluaren Akta irakurri eta onartzea (2006. urteko ekainaren 14a)**

ERABAKIA: 2006. urteko ekainaren 14ko Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkuraren Akta onartzea.

### **Bigarren puntua: Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren 2006. ekitaldiko urteko txostena aurkeztea eta onartzea.**

ERABAKIA: 2006. ekitaldiko Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Urteko Txostena onartzea, eta, jarraian, Legebiltzarrari igortzea.

ERABAKIA: Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak udalerrien eskura jartzen duen araudiaren garapenaren aukera zabala erabiltzeko eskatu dio EUDELi, irisgarritasuna bultzatzeko helburua duten neurriak sustatzeko.

ERABAKIA: EAEko Udal guztiei zuzendutako dokumentu bat egitea, Udaletako teknikariei irisgarritasunaren inguruko gai horietan aholkatzeko langile kualifikatuak eduki ditzaten eskatuz, eta era berean, gai horren inguruan herritarrek parte har dezaten bultzatzeko mekanismo egokiak ezarri ditzaten eskatuz; dokumentua bidali aurretik, Kontseiluaren hurrengo bileran onartu beharko da.

**Hirugarren puntua: 2006. urteko ekitaldiari dagokion 2006. urteko abenduaren 20ko bileran Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek eztabaidatutako gaiak.**

**a) *Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren web-orriaren egokitzapena (www.euskadi.net/cvpa).***

Osoko Bilkurari 2006. urteko abenduaren 20ko Batzorde Iraunkorrean hartutako 2. erabakiaren inguruan jakinarazi zaio web-orriara sartzeke dauden egokitzapen batzuk daudela, bateragarritasuna bideragarri egiteko Kontseiluaren web-orriaren menpeko web-orrian hainbat egokitzapen egin behar direlako.

**b) *Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko bileretarako deialdia ohiko postaren bitartez, eta kontrako esanbidezko jakinarazpena badago izan ezik, baita formatu digitalaren bitartez ere.***

Osoko Bilkurari 2006. urteko abenduaren 20ko Batzorde Iraunkorrean hartutako 3. erabakia bete dela jakinarazi zaio; erabaki horren bitartez, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren osoko bilkuraren deialdia egin da ohiko postaren bitartez eta formatu digitalean.

**c) *Ezinduei esleitutako etxebizitzaren egokitzapena.***

2006. urteko abenduaren 20an Batzorde Iraunkorrean hartutako 4. erabakiaren inguruan jakinarazi zaio Osoko Bilkurari behin Foru Aldundiak osatutakoan, horiek Euskal Kontseiluak bere momentuan eskatu zuen lankidetzaren balioesteko prest egongo direla. Hiru Foru Aldundien erantzunarekin, berariazko elkarrizketei hasiera emango zaie etxebizitzak egokitzeko garaian jardun-protokolo bat ezartzeko, egin behar diren egokitzapenei dagokienez, gatazka sortzen den kasuetan etxebizitzak egokitzeko.

**d) Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren esku-hartzea, “Deban N-634 errepidea Mutrikuko GI-628 errepidearekin lotzeko egingo den lotura berriaren eraikuntza-proiektu aldatua” (erref..23.06 ACC/IRSK)**

Osoko Bilkurari jakinarazi zaio 2006. urteko abenduaren 20an Batzorde Iraunkorrean hartutako 5. erabakia bete dela; erabaki horren bitartez Elkartuk emandako dokumentazioa Garraio eta Herri Lan Sailera igortzen da, egindako eskaerak eta eskaera horri erantzun egoki bat eman diezaiokeen planteamendua balioesteko helburuarekin; era berean, Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrak esku-hartze hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren Errepide Zuzendaritza Nagusiari eta Elkartu elkarteari igorriko die.

**Laugarren puntua: Irisgarritasun Planak lantzeko, edo Irisgarritasuna bermatzeko Obrak gauzatzeko Diru-laguntzen deialdi berria.**

Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol zuzendariak Udalei, Tokiko Erakunde Txikiei eta irabazi-asmorik gabeko Erakunde Pribatuei zuzendutako diru-laguntzen deialdiaren ildo nagusiak azaldu ditu. 2007. urteko irailean argitaratuko dela aurreikusten da, horren argitalpenak oporraldiaren hasiera baino lehenago sortu ohi dituen arazoak saihesteko helburuarekin, dokumentazioa emateko aurreikusitako epeak betetzeko.

Aurreko urteetako balorazio-irizpide berak mantendu dira eta Sailak aurrekontu-partida 3.500.000 eurora igo du. Hasiera batean, 3.200.000 euro eman zaizkie Udalei eta Tokiko Erakunde Txikiei eta 300.000 euro irabazi-asmorik gabeko eta onura publikoko Erakunde Pribatuei.

**Bosgarren puntua: Irisgarritasunaren Euskal Erakundea – bere sorkuntzaren azterketa. Irisgarritasunaren politika publikoaren kudeaketa arautzeko aukera horretarako egokitzat hartzen diren organoak sortuz edota duden organoen birformulazioaren bitartez**

ERABAKIA: Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkuraren aparteko deialdia, Irisgarritasunaren Euskal Erakundearen legearen araberrako

egokitasuna eztabaidatzeko, irisgarritasunaren politika publikoaren kudeaketa, hala badagokio, horretarako egokitzat hartzen diren organoen sorkuntzaren bitartez edota dauden organoen birformulazioaren bitartez arautzeko aukera.

**Seigarren puntua: Proposamena – Araudi ezberdinen arteko gatazken kasuan edota irisgarritasunarentzako onuragarriagoa den interpretazioan jarduteko irizpideak.**

Osoko Bilkura araudi ezberdinen arteko gatazka jorratu da, araudi horiek irisgarritasun-araudiarekin bat egiten dutenean. Arazoaren oinarria honako kasu hauetan dagoela azpimarratu da: alderdi berdinak arautzen dituzten araudi ezberdinek erantzun ezberdinak zehazten dituzte. Araudien arteko koordinazio-arazoa da irisgarritasun-araudiari araudi horrekin batera dauden gainerakoen aldean lehenetasuna emateko arazoa baino gehiago.

Ez da horren inguruan inolako erabakirik hartzen.

**Zazpigarren puntua: Galde-eskeak**

**a) Kolektiboentzako kupoak 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planean.**

Euskal Gorrak elkarteko ordezkariak interesa adierazi du 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planak kolektibo jakinentzat lehenetasunez aurreikusitako kupoen inguruan eta horiek indarrean jarriko diren momentuaren inguruan.

Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol zuzendariak jakinarazi du gaia arautzen duen Dekretua azkeneko informazio-faseetan aurkitzen dela, eta segituan argitaratuko dela. Izan ere, Dekretu bidez arautzea erabaki zen, abiaraztea azkartzeko helburuarekin, Etxebizitza Legeak aurreikuspen berdinak gehituko balitu, gehiago atzeratuko litzateke eta.

**b) Zeinu Mintzaira hizkuntza ofizial gisa onartzea.**

Euskal Gorrak elkarteko ordezkariak jakinarazi du zeinu-mintzaira berehala onartuko dela hizkuntza ofizial gisa. Bertaratutakoek gorren kolektiboarentzat eta berezko irisgarritasunarentzat lorpen garrantzitsu gisa balioetsi dute gertakari hori.

Aztertzeke gai gehiagorik ez dagoenez, Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol zuzendariak amaitutzat jo du 2007. urteko Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkuraren bilera.



Jarraian, **Hartutako Erabakiak** azaltzen dira:

1. ERABAKIA: 2006. urteko ekainaren 14ko Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkuraren Akta onartzea.
2. ERABAKIA: 2006. ekitaldiko Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Urteko Txostena onartzea, eta, jarraian, Legebiltzarrari igortzea.
3. ERABAKIA: Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak 2/2006 Legeak udalerrien eskura jartzen duen araudiaren garapenaren aukera zabala erabiltzeko eskatu dio Eudeli, irisgarritasuna bultzatzeko helburua duten neurriak sustatzeko.
4. ERABAKIA: EAeko Udal guztiei zuzendutako dokumentu bat egitea, Udaletako teknikariei irisgarritasunaren inguruko gai horietan aholkatzeko langile kualifikatuak eduki ditzaten eskatuz, eta era berean, gai horren inguruan herritarrek parte har dezaten bultzatzeko mekanismo egokiak ezarri ditzaten eskatuz; dokumentua bidali aurretik, Kontseiluaren hurrengo bileran onartu beharko da.
5. ERABAKIA: Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkuraren aparteko deialdia onartzea, Irisgarritasunaren Euskal Erakundearen legearen araberako egokitasuna eztabaidatzeko, irisgarritasunaren politika publikoaren kudeaketa, hala badagokio, horretarako egokitzat hartzen diren organoen sorkuntzaren bitartez edota dauden organoen birformulazioaren bitartez arautzeko aukera.

### 3.- IRISGARRITASUN ARLOKO LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUA


Irisgarritasun arloko Laguntza Teknikoko Zerbitzuak honako jarduera hauek garatzen ditu:

- Kotsultak ebazteko eta aholkularitzako zerbitzua.
- Irisgarritasuna Sustatzeko Batzorde Iraunkorarentzako eta Euskal Kontseiluarentzako laguntza teknikoak.
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarentzat Laguntza Teknikoak.


#### 3.1.- Kotsultak ebazteko eta aholkularitzako zerbitzua:

Jendeari arreta emateko Zerbitzua da, eta herri-administrazioek eta administrazio partikularrek irisgarritasunari buruz planteatutako kotsulta guztiak (legediari dagozkionak, teknikoak eta laguntzei buruzkoak) jasotzen eta atenditzen dira Zerbitzu horretan. 2007. urtean artatutako kotsulten inguruko datuak laburbilduko ditugu jarraian.


2007. urteko urtarrilaren 1etik 2007. urteko abenduaren 31ra bitarte, Zerbitzuan jasotako eta erantzundako kotsultak, guztira, honako hauek izan dira: **213**. Batez beste, hilean 20 kotsulta izan ditu Zerbitzuak, eta azaroan bildu da kotsulta gehien.



Kotsultak zein **Lurralde Historikotatik** egin diren zenbatzean, kotsulta gehienak Bizkaikoak dira (133); bigarren postuan Gipuzkoa dago (45), eta EAEko hiru probintzietatik kotsulta gutxien egin dituen lurraldea Araba da (31). Beste Autonomia Erkidegoetatik ere egin dira kotsulta gutxi batzuk.



Kontsulta gehienak pertsona juridiko pribatuek egin dituzte (% 76); jarraian pertsona juridiko publikoek (bakarrik Zerbitzuko erabiltzaileen % 16), eta, azkenik, pertsona fisikoek, partikularrek (gainerako % 8).




Pertsona juridiko publikoek egindako kontsulten barruan, Zerbitzua eskatzen duten udalen kopurua nabarmentzen da, kontsulten % 90 udaletatik egiten baita.

Erakunde pribatuei dagokienez, kontsulta gehien egin dituztenak arkitekturaren enpresak eta profesionalak izan dira (% 46); auzo-komunitateek, berriz, kontsulten % 44 egin dute.

Erakunde pribatuek egindako kontsulta guztien % 10 osatzen dute beste motatako profesionalak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeek egindako kontsultek.

**Artatutako kontsultak gaiaren arabera** zenbatuz gero, legediari buruzkoak % 56 izan dira, alderdi teknikoei buruzkoak % 34, eta diru-laguntzei buruzkoak % 8.

Kasu askotan, irisgarritasunaren arazoarekin lotura handia duten arau-kontzeptuak argitu behar izan ditugu. Gehien errepikatu den kasua honako hau izan da: Jabetza Horizontaleko Legetik eratorritako irisgarritasunari buruzko kontsultak (% 41).



Kontsulta askotan, Irisgarritasuna Sustatzeko Legeari buruzko galderekin batera, horrekin lotutako beste hainbat kontsulta ere (irtenbide teknikoen eskaerak...) egin dira, gaiak nahastuta. Horrelako askotariko kontsultak egin dituztenak auzo-komunitateak izan dira, batik bat, eta kasu horietan, honako hauek azaldu behar izan dira: Irisgarritasuna Sustatzeko Legea, Jabetza Horizontalaren Legea eta laguntza teknikoak, baita kasuan kasu jaso zitzaketen diru-laguntzak ere. Kontsulta gehienak, ia denak, telefonoz ebatzi dira, eta kasu gutxitan jarri behar izan da hitzordua jendearekin.

### **3.2.- Irisgarritasuna Sustatzeko Batzorde Iraunkorarentzako eta Euskal Kontseiluarentzako laguntza teknikoa.**

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarentzat laguntza teknikoko Zerbitzuak garatu beharreko beste jarduera bat honako hau da: Batzorde Iraunkorari, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari eta sailari berari laguntza teknikoa ematea. Ildo horretatik, honako ekintza hauek egin ditugu:

- 1.- Etxebizitza Sailarentzako Txostena, Gasteizko arrapala mekanikoei buruzkoa.
- 2.- Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluarentzako Txostena, hots, etxebizitzak izateko egokitutako lonjak Laudion familia bakarreko etxebizitzat hartzekean edo ez galderaren inguruko irizpidea argitzeari buruzko erabakia hartzeko eskatuz.
- 3.- Etxebizitza Sailaren Txostena, Gasteizko Jabetzaren Ganberan kokatzen den lokalaren irisgarritasun-baldintzei buruzkoa.
- 4.- Etxebizitza Sailarentzako Txostenak, Loiolako Erriberan (Donostia) BOE sustapen batean gordetako etxebizitzaren esleipendunek behar dituzten egokitzapenak egokiak ote diren aztertzeko.
- 5.- Etxebizitza Sailarentzako Txostena, egokitutako etxebizitzetatik etorritako arazoari buruzkoa.

#### 4.- IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUARI PROPOSATUTAKO GAIEN LABURPENA

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluan kontsultak jaso eta erantzun egiten dira, araudiaren aplikazioaren inguruan, salbuespenen komunikazioaren inguruan eta abar. Jarraian, gai horien laburpena azalduko dugu.

##### 4.1.- Txosten-eskaerak eta Kontsultak

2007. urtean, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari zuzenean bidalitako hainbat txosten-eskaera jaso ditugu irisgarritasunarekin lotutako gaietara; halaber, zenbait kontsulta ere izan ditugu, guztira **hamahiru espedientek (13)** osatuta.

Erregistroa	Erakundea	Lurraldea	Gaia
01.07 ACC	Udala	Gipuzkoa	Irisgarritasun-araudiaren eta beste araudien gatazka.
02.07 ACC	Partikularra	Bizkaia	68/2000 Dekretuaren V Eranskina aplikatzea. Obra-lizentzia eta jardueralizentzia.
03.07 ACC	Profesionala	Madril	68/2000 Dekretuaren V. Eranskina aplikatzea merkataritza-lokala haur-hezkuntzako zentro bihur dadin eraberritzeari buruzkoa.
04.07 ACC	Profesionala	Bizkaia	68/2000 Dekretuaren V. Eranskina aplikatzea.
05.07 ACC	Partikularra	Bizkaia	Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak ezinduentzako aurreikusitako laguntza-ildoetara buruzko informazioa.
06.07 ACC	Profesionala	Bizkaia	Erreforma norberaren etxebizitzan.
07.07 ACC	Udala	Bizkaia	Irisgarritasun-araudiaren eta beste araudien gatazka.
08.07 ACC	Udala	Gipuzkoa	Jarduera-lizentzia – Obra-lizentzia
09.07 ACC	Justizia Administrazioa	Bizkaia	Interpretazioa – irisgarritasun-araudia aplikatzea
10.07 ACC	Udala	Gipuzkoa	Gaur egungo araudia baino lehenago zeuden eraikinetan igogailuak instalatzeari buruzko arazoa
11.07 ACC	Udala	Gipuzkoa	Irisgarritasun-araudiaren eta beste araudien gatazka.

Erregistroa	Erakundea	Lurraldea	Gaia
12.07 ACC	Partikularra	Bizkaia	Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak ezinduentzako aurreikusitako laguntza-ildoetarako buruzko informazioa.
13.07 ACC	Udala	Gipuzkoa	Irisingarritasun-araudiaren eta beste araudien gatazka.

Zerbitzuak artatutako kontsulta guztiak oro har aztertu ondoren, honako kontsiderazio hauek egin ditzakegu:

1. Telefono-laguntzako zerbitzuaren erabiltzaileek asebetetze-maila handia mantentzen dute (900 LINEA). Ohikoa da telefono-laguntzako zerbitzua erabiltzen duten pertsona edo erakundeek asebetetze-maila hori espresuki adieraztea, eta zentzu horretan kontsulta horiek azkar eta erabiltzaileek laguntza behar duten momentuan erantzutea positiboki balioesten dute; era berean, oso positibotzat hartzen da laguntza-ildo horretan telefono-laguntzako zerbitzua "erabili ahala" sortzen joaten diren zalantzei edo alderdi berriei erantzun ahal izatea.
2. Udalek eta profesionalek beren kontsultak aldeztu aurretik egiteko joera dute, irisingarritasun-araudiari erantzun egoki bat eta behar bezalako erantzun bat emateko helburuarekin. Aldiz, partikularrek, beren erabakiak hartu ondoren eta beren helburua lortu ez dutenean egin ohi dituzte kontsultak eta gertakari horrek planteatzen dituen kontuei konponbide egoki bat emateak normalean zailtasun handiago bat dakar.
3. 68/2000 Dekretuaren V. Eranskina aplikatzearekin erlazionaturako kontsulten indize handi bat mantentzen da (urbanizazio eta eraikinetan eraberritze-, handitze- edo aldaketa-obrak).
4. Jabekideen Komunitateetan igogailuak instalatzeak kasu askotan bizilagunek beren gain har ezin dezaketen kostu bat dakar, eta horren ondorioz erabakiak hartzea zailagoa egiten da edo irisingarritasuna hobetzeko eskakizun-maila txikiagotu egiten da.
5. Dekretua aplikatzerako garaian, eremu horretan bat egiten duten araudiak koordinatzeko esfortzu bat egiteko premia ikusten da: udal-ordenantzak, jabetza horizontala, irisingarritasuna, hirigintza-araudia.

6. Gordetako etxebizitzaren desfektazio-prozedurekin zerikusia duten kontsulten maiztasuna; profesionalak, teknikoeak eta partikularrek dute prozedura horien ardura.

#### 4.2.- Salbuespenak jakinaraztea

68/2000 Dekretuaren V. Eranskineko (Urbanizazio eta Eraikinetan eraberritze-, handitze- edo aldaketa-obrak) 3.3. puntuari jarraiki, 2007. urtean, gaur arte, irisgarritasun-araudia aplikatzerakoan salbuespena ezarri zaien **166 espediente** helarazi zaizkio Kontseiluari. Salbuespena aplikatu dutela Kontseiluari jakinarazi dioten Udalak honako hauek dira:

Erregistroa	Udala	Arrazoia
01.05 EXE/CVPA	Barakaldo	Ibarra kaleko 10. zenbakian igogailua jartzea. Salbuespena eman dute, ez delako posible kabina handiagorik sortzea ebakuazio-baldintzak urritu gabe.
01.07 EXE/CVPA	Zarautz	Nafarroa kaleko 37 B zenbakian igogailua jartzea. Salbuespena eman dute, eraikinaren egiturazko gorabeherak direla-eta, igogailuaren kabinaren neurriak ezin direlako egokitu.
02.07 EXE/CVPA	Zarautz	Mitxelena kaleko 79. zenbakian igogailua jartzea. Igogailuaren kabinaren neurriak egokitzea salbuetsi dute, eraikinaren ezaugarriak eta egitura direla-eta.
03.07 EXE/CVPA	Barakaldo	Magallanes kaleko 17. zenbakian igogailua jartzea. Igogailuaren kabinaren neurriak ezin dira egokitu, eskaileraren lauzarengatik, eskaileraren neurriengatik eta atariko eta eskaileraburuen neurriengatik (salbuespena); sartzeko plataformen neurriak mantendu dira (erabilgarritasuna).
04.07 EXE/CVPA	Barakaldo	Aldaba kaleko 24. zenbakian igogailua jartzea. Igogailuaren kabinaren neurriak ezin dira egokitu, eskaileraren lauzarengatik, eskaileraren neurriengatik eta atariko eta eskaileraburuen neurriengatik (salbuespena); sartzeko plataformen neurriak mantendu dira (erabilgarritasuna).
05.07 EXE/CVPA	Barakaldo	Goya kaleko 3. zenbakian igogailua jartzea. Igogailuaren kabinaren neurriak ezin dira egokitu, eskaileraren lauzarengatik, eskaileraren neurriengatik eta atariko eta eskaileraburuen neurriengatik (salbuespena); sartzeko plataformen neurriak mantendu dira (erabilgarritasuna).
06.07 EXE/CVPA	Barakaldo	San Bizente kaleko 17. zenbakian igogailua jartzea eta fatxadaren itxiera aldatzea. Igogailuaren kabinaren neurriak ezin dira egokitu, eskaileraren lauzarengatik, eskaileraren neurriengatik eta atariko eta eskaileraburuen neurriengatik. 07.02.15ean aldeztu aurretik emandako lizentzia aldatu dela jakinarazi zigun udalak, eta horren arabera, momentu horretatik aurrera obraren zuintetarako eskaileraren zabalera murriztea dakar, hasiera batean proiektatutako igogailuaren kabinaren neurriak handitzeko.



Erregistroa	Udala	Arrazioa
07.07 EXE/CVPA	Barakaldo	Zuloaga kaleko 1. zenbakian igogailua jartzea. Igogailuaren kabinaren neurriak ezin dira egokitu, eskaileraren lauzarengatik, eskaileraren neurriengatik eta atariko eta eskaileraburuen neurriengatik (salbuespena); sartzeko plataformen neurriak mantendu dira (erabilgarritasuna).
08.07 EXE/CVPA	Zarautz	Nafarroa kaleko 27. zenbakian igogailua jartzea. Gutxi gorabehera 0,80 x 120 metroko neurriak dituen igogailuaren kabinak ez ditu 68/2000 Dekretuaren V. Eranskineko 3.2.g artikuluan eskatutako gutxieneko neurriak betetzen. Eraikinaren egitura-baldintzetan albuespena egiaztatzen da.
09.07 EXE/CVPA	Zarautz	Santa Maria Kaleko 7. zenbakian igogailua jartzea. Igogailuaren kabinak (0,84 x 1,41) ez ditu bi ateko igogailuentzat eskatutako gutxieneko baldintzak betetzen (1,50 x 1,50), eraikinaren egiturazko gorabeherak direla-eta. Igogailura kotan + 1,70 metrora sartzan da, eta guztira 10 eskailera-mailez eraikitako langa bat dago: Erditoko solairuaren ondoan dagoen fatxadatik sarrera edukiko duen plataforma jasotzaile bat jartzea proposatu da: bertatik igogailura sartuko litzateke eta horrela atarian dagoen oztopoa kenduko litzateke.
10.07 EXE/CVPA	Zarautz	Mollarri Kaleko 11. zenbakian igogailua jartzea. Albuespena eman dute, eraikinaren ezaugarriek goiko solairuetako igogailuaren kabinara sartzeko ateen ondoan eta etxebizitzetara sartzeko eskaileraburuetan kokatutako sartzeko plataformetan 1,40 metroko diametroa duen zirkulu bat egitea galarazten baitute.
11.07 EXE/CVPA	Zarautz	Mollarri Kaleko 9. zenbakian igogailua jartzea. Albuespena eman dute, eraikinaren egiturazko ezaugarriek goiko solairuetako igogailuaren kabinara sartzeko ateen ondoan eta etxebizitzetara sartzeko eskaileraburuetan kokatutako sartzeko plataformetan 1,40 metroko diametroa duen zirkulu bat egitea galarazten baitute.
12.07 EXE/CVPA	Arrasate	Errastikua baserrian (Bedoña auzoko 18. zenbakia) igogailua jartzea. Plataforma jasotzaile bertikal bat jarri da, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzaren behin-behineko instrukzioari erantzunez, baina araudira egokitzen ez bada mekanismoak jarriko dira eta aldizkako ikuskapenak aurreikusten dira igogailuak behar bezala funtzionatzeko.
13.07 EXE/CVPA	Errenteria	Lartzabal auzoko 1. eta 3. zenbakietan igogailua jartzea. Obra albuespen bat izango balitz bezala jakinarazi dute baina ez dituzte albuespenaren baldintzak edota albuespenaren egiaztapena zehazten. Informazioa zabalitzeko eskatu zaie. Udalak erantzuna eman du egikaritu beharreko proiektuaren inguruan eta proiektuaren espezifikotasunak hartutako neurriak egiaztatuz. Eraikina 2 blokek osatzen dute eta kanpoko eskailera bera dute. Eskailera horrek eskaileraren kota eta lehenengo solairuko plazatxoaren kota lotzen ditu; bertatik eraikinaren atarira sartzan da. Eskaileraren alde batean igogailu bat jartzea proposatu da arkitektura-oztopoari irtenbidea aurkitzeko eta igogailuaren kabinaren neurriak ezin dira erabat egokitu eraikinaren egitura dela-eta.

Erregistroa	Udala	Arrazioa
14.07 EXE/CVPA	Durango	Murueta Torre Auzuneko 2D BJ 1D zenbakian dagoen lokala, prentsa-denda eta bideokluba izango dena, berritzeko obrak. Lokala egokitu da baina kutxazain automatikoa ezin izan dute egokitu. Pelikula-biltegiaren neurri estandarra dela-eta, pelikula-biltegia ezin izango da ateratze-ahoaren behean kokatu; horrenbestez, altuera jakin batean jarri beharko da.
15.07 EXE/CVPA	Elgoibar	Pedro Miguel Urruzuno kaleko 12. zenbakian igogailua jartzea. Eskaileraren espazio-mugek eta eskailera-kaxaren formaren mugek, eta zerikusirik ez duten jabetzen igogailuaren esparruko interferentziek emandako salbuespena egiaztatzen dute, udal-teknikarien iritziz.
16.07 EXE/CVPA	Ordizia	Ordizia kaleko 3. zenbakiko behe-solairuan hortz-klinikako lokal bat eraberritzea. Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari ez zaizkio jakinarazi zeintzuk diren salbuesitako araudia eta salbuesitako araudiaren egiaztapena. Informazioa zabaltzeko eskatu zaie. 2007. urteko apirilaren 11n informazioa zabaldu digute egokitzapena ezin dela egin egiaztatuz (eraikinaren lurreko solairuaren parte den eskailera-maila eta fisikoki eraikinerako sarrera hartu ezin duen arrapala).
17.07 EXE/CVPA	Basauri	Menéndez y Pelaio kaleko 4. zenbakian igogailua jartzea. Igogailuetara sartzeko plataformek, ezin denez oztoporik gabeko 140 zentimetroko diametroa duen zirkulu libre bat egin, dituzten neurriak mantenduko dituzte. Kabinaren neurriek ez dituzte arauzko eskakizunak lortzen egiturazko ezaugarriak direla-eta.
18.07 EXE/CVPA	Basauri	Urbi kaleko 47. zenbakian igogailua jartzea. Igogailuaren kabinak ez ditu eskatutako neurriak eta igogailuetara sartzeko plataformek ez dute 1,40 zentimetroko zirkulu libre ahalbidetzen. Ezinezkoa da egokitzapen horiek egitea higiezinaren egiturazko ezaugarriengatik.
19.07 EXE/CVPA	Erreneria	Alaberga Auzoko 6. zenbakian igogailua jartzea. Obra-lizentzia eman dela jakinarazi da, baina ez dira zehazten zeintzuk diren balioetsitako salbuespena eta salbuespenaren egiaztapena. INFORMAZIOA ZABALTZEKO ESKATU ZAIE. 2007. urteko martxoaren 14an, telefono-kontsultari erantzuna emanez, Udalaren Hirigintza Saileko teknikariari udal-salbuespena emateko kasuetan jarduteko modu egokiaren inguruan erantzuna eman zaio. 2007. urteko martxoaren 19an, Hirigintza Saileko ordezkariak txostena igorri dio Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari, informazioa zabalduz.
20.07 EXE/CVPA	Basauri	San Balendin Berriotxo kaleko 11. zenbakian igogailua jartzea. Eraikinaren egiturazko zirkunstantziek salbuespena egiaztatzen dute, igogailura sartzeko plataformak, pasilloen zabalerak eta igogailuaren kabinako neurriak egokitzea oztopatzen baitute.
21.07 EXE/CVPA	Basauri	Trenbide kaleko 1. zenbakian igogailua jartzea. Eraikinaren ezaugarriek araudira egokitutako egokitzapena burutzea oztopatzen dute: eskaileraren azpian kokatutako lokalaren afekzioak behe-solairuko kotatik sartzea oztopatzen du, eskaileraren zuloaren neurriek igogailuaren kabinaren neurriak egokitzea oztopatzen dute eta sartzeko plataformak mantentzen dira.

Erregistroa	Udala	Arrazoia
22.07 EXE/CVPA	Zarautz	Bixkonde kaleko 4. zenbakian dagoen lokala jatetxe turkiar batean bihurtzeko egokitze-obrak. Egin nahi diren obren aurrekontua bikoiztu egingo litzateke, sotoan komun egokitu batzuk moldatuko balira eta plataforma jasotzaile bat jarriko balitz; era berean, gehiegizko gastuak eta lokalak bertara sartzeari ahalbidetzen duen sarrera bat edukitzeak emandako salbuespena egiaztatzen dute, udal-irizpidearen arabera.
23.07 EXE/CVPA	Zarautz	Kale Nagusiko 2. zenbakiko merkataritza-dendaren (gorputza zulatzeak eta tatuajeak egiteko denda) irisgarritasuna. Denda jartzeko lizentzia eskatzen da baina ez dira egokitze-obrak egingo. Nolanahi ere, sartzeko arrapala eramangarri bat edukitzea proposatu da sarrera ahalbidetzeko. Udalak sarrerak alboko eskubanda bat edukitzea eskatu du sarrera errazteko.
24.07 EXE/CVPA	Zarautz	Orix Kaleko 1. zenbakiko C atariko igogailuaren ibilbidea sotoraino luzatzea. Eraikinaren egiturazko ezaugarriek ez dute igogailuaren kabinaren neurrien eta sartzeko plataformen egokitzapena ahalbidetzen.
25.07 EXE/CVPA	Durango	Goinkalea kaleko 12. zenbakiko behe-solairuan dagoen "vending" lokala eraberritzea (saltzeko makinak bidezko 24 orduko salmenta). Salbuespena eman dute, bakarrik erabilgarritasun-irizpideak aplikatzeak lokalaren azalera baino % 15eko azalera handiagoa edukitzea dakarrelako (dendak 9,90 m <sup>2</sup> -ko azalera du eta biltegiak 12,20 m <sup>2</sup> -ko azalera)
26.07 EXE/CVPA	Getxo	Iturgitxi kaleko 7. zenbakiko Jabeen Erkidegora sartzeko arrapala eraberritzea. Erabilgarri dagoen espazioko maldaren ehunekoari dagokionez betetzea salbuespena dago.
27.07 EXE/CVPA	Tolosa	Gernikako Arbolaren Lorategiak 1. zenbakiko behe-solairuan eta sotoan ziber-jarduerarako obrak legezatzeko lizentzia. Proiektu teknikoak lokalera arrapala bitartez sartzeko ezintasun fisikoa islatzen du, sotoko sabai-forjatua apurtu beharko bailitzateke; izan ere ez du Gipuzkoa plazara ematen duen fatxadarik. Udal-lizentziak oro har, bere lizentzia orokorretan, (2.1.15) lokaleko sarrerako eskailerak kentzea definitzen duen arau-aurreikuspenak bete behar direla zehazten du.
28.07 EXE/CVPA	Villabona	Errota kaleko 7. zenbakiko behe-solairuan dagoen lokala fisioterapia-zentro bat jartzeko egokitzea. Interesdunen iritziz, komuna egokitzeari dagokionez, ez dute jakinarazi arrazoia betetzea galarazten duen justifikazioa eta Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari informatzea eskatu zaio. Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak SALBUESPENEN DINAMIKAREN INGURUAN ERANTZUNA EMAN DU.
29.07 EXE/CVPA	Zarautz	Herrikobarra kaleko 3. zenbakian igogailua jartzea. Salbuespena eman dute igogailuko kabinaren neurriari eta sartzeko eskaileraburuan egin beharreko zirkuluarri dagokionez, eraikinaren egiturazko baldintzengatik.
30.07 EXE/CVPA	Barakaldo	Lasesarre kaleko 1. zenbakian igogailua jartzea. Salbuespena eman dute, igogailuaren kabinaren neurriak ezin direlako egokitu, eskaileraren lauzak eta horien, atariaren eta eskaileraburuaren neurriak galarazten baitute, eta sartzeko plataformetan neurriak mantendu dituzte; horrenbestez erabilgarritasun-irizpideari heldu zaio.

Erregistroa	Udala	Arrazioa
31.07 EXE/CVPA	Basauri	Katalunia kaleko 27. zenbakian igogailua jartzea. Salbuespena eman dute igogailuaren kabinaren neurriei eta kabinara sartzeko gutxieneko zabalerari dagokienez, eraikinaren ezaugarriek ez baitute konponbide hobeagoak hartzea ahalbidetzen.
32.07 EXE/CVPA	Barakaldo	Askatasunaren Etorbideko 41. zenbakian dagoen okindegiko lokalak egokitzeko obrak. Sarbideei eta komunei buruzkoa betetzeko salbuespena eman dute, izan ere, lokalaren azaleraren % 13,75 beharko bailitzateke.
33.07 EXE/CVPA	Zarautz	Ixpilla plazako 3B zenbakian igogailua jartzea. Salbuespena eman dute eraikinaren egiturazko eta tipologiako baldintzek garajeen solairutik igogailura sartzeko dagoen desnibela gainditzea oztopatzen dutelako. Gutxi gorabehera 50 zentimetro dituen desnibela gainditzea aurreikusi da, 1,80 metroko zabalera eta % 10eko malda duen arrapala baten bitartez, baina ez ditu arrapala igarotzean biraketa egitea erraztuko duten eskaileraburu horizontalak aurreikusten; horrez gain, ez du ibilbidearen amaieran eskaileraburu bat aurreikusten esparruaren barrura sartu aurretik.
34.07 EXE/CVPA	Portugalete	Errepelegako anbulatorioko igogailua birmoldatzea. Ez da zehazten salbuespenen bat eman denik, bakarrik obrak egikartzeko lizentzia eman dela jakinarazten da. INFORMAZIOA ZABALTZEKO ESKATU ZAIE.
35.07 EXE/CVPA	Getxo	Algortako Etorbideko 62. zenbakian dagoen lokal batean proiektuen aholkularitzaren jarduerarako jarduera-lizentzia eta obra-lizentzia. Atarira sartzeko egokitzapenaren salbuespena eman dute (eskailera-maila gainditzea) Jabeen Erkidegoak ez baitu egiturazko elementu komun bat (behe-solairuko forjaketa) lokalera sartzeko arrapala egiteko.
36.07 EXE/CVPA	Zarautz	Mendilauta kaleko 16. zenbakian igogailua jartzea. Eraikinaren egiturazko eta tipologiako ezaugarriek ez dute igogailuaren kabinaren neurriak egokitzea edota kanpoko dei-sakagailuen ondoan eta igogailuaren kabinara sartzeko solairuen aurrean (goiko solairuetan) kokatuta dauden sartzeko plataformetan 1,50 metroko diametroa duen zirkulu bat egitea ahalbidetzen.
37.07 EXE/CVPA	Erreneria	Urutzu kaleko 4. zenbakian igogailua jartzea. Toki fisikoaren eta dauden egiturazko baldintzen mugek ez dute igogailuaren kabinaren neurriak eta barruko zirkulazio-eremuetako igarobide-zabalerak egokitzea ahalbidetzen.
38.07 EXE/CVPA	Erreneria	Bidasoa kaleko 1. eta 3. zenbakietan igogailua jartzea. Igogailua higiezinaren barnealdean jartzea fisikoki ezinezko denez gero, eta horren kostua oso handia denez gero, igogailua kanpoaldean jarriko da, eskaileraren fatxadaren aurrean; horrenbestez, solairuetako geldialdiak eskaileraren bitarteko eskaileraburuetan egingo dira, etxebizitza-solairuen arteko altuera-erdian.
39.07 EXE/CVPA	Basauri	Kareaga Goikoa kaleko 131. zenbakian igogailua jartzea. Eskailera-kaxaren kanpoaldean igogailua jarriko da, kanpoko patioaren zati bat okupatuz (eraikinaren aurrean). Ezinezkoa da kabinaren neurriak egokitzea eta sartzeko plataformetan neurriak mantenduko dira, egiturazko ezaugarriengatik. 39.07 ETA 40.07 ESPEDIENTE BERA.

Erregistroa	Udala	Arrazioa
40.07 EXE/CVPA	Basauri	Kareaga Goikoa kaleko 132. zenbakian igogailua jartzea. Eskailera-kaxaren kanpoaldean igogailua jarriko da, kanpoko patioaren zati bat okupatuz (eraikinaren aurrean). Ezinezkoa da kabinaren neurriak egokitzea eta sartzeko plataformetan neurriak mantenduko dira, egiturazko ezaugarriengatik. 40.07 ETA 39.07 ESPEDIENTE BERA.
41.07 EXE/CVPA	Barakaldo	García Lorca Plazako 2. zenbakiko lokala egokitzea, bakailao-eta elikagai-denda jartzeko. Lokalerako sarbideak irisgarriak izateko ezintasuna egiaztatzen dute, okupazioa neurritz kanpokotzat hartzen delako; izan ere, egokitzapen horrek solairuko azalera erabilgarriaren % 18 okupatuko luke.
42.07 EXE/CVPA	Barakaldo	Norberto Acebal kaleko 6. zenbakian lokala egokitzea bulego bat jartzeko. Egiaztatzen dute ezinezkoa dela lokalaren azalera erabilgarriaren neurritz kanpoko okupazioa egokitzea (sarbideak eta komunak), lokaleko azaleraren % 10 baino gehiago okupatzea eskatzen baitu.
43.07 EXE/CVPA	Barakaldo	Murrieta kaleko 49. zenbakian igogailua jartzea. Salbuespena egiaztatu dute igogailuaren kabinaren neurriak egokitu ezin direlako, eskaileraren lauzak eta eskaileraren neurriak egokitzapena oztopatzen baitute; sartzeko plataformen neurriak mantendu dira (erabilgarritasuna) eta plataforma horiek bitarteko eskaileraburuan kokatu dira (salbuespena).
44.07 EXE/CVPA	Barakaldo	Maiatzaren Lehena Multzoa kaleko 43. zenbakiko fatxadan igogailua jartzea. Igogailuaren kabinaren neurriak egokitzea ezinezkoa dela egiaztatzen dute, eskaileraren lauzak eta eskaileraren, atariaren eta eskaileraburuaren neurriak oztopatzen dutelako, salbuespen-irizpideari helduz eta sarreraren eta etxebizitza-sarreraren artean dagoen desnibela mantenduz, egiturazko arazoiengatik eta erabilgarritasunagatik, sartzeko plataformen neurriak mantentzeagatik.
45.07 EXE/CVPA	Barakaldo	Nerbioi kaleko 2. zenbakiko lokala ile-apaindegia jartzeko egokitzea. Lokala egokitzea ezinezkoa dela egiaztatu dute (sartzeko arrapala eta komunak) lokalaren azalera erabilgarriaren neurritz kanpoko okupazioan (lokaleko azaleraren % 10 baino gehiago).
